

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ENGAINATU EGIN NINDUTEN

Claudia Gonzalez Rodriguez dut izena eta Kolonbian jaio nintzen, Bogotan, orain dela 47 urte. 2003an etorri nintzen Euskal Herrira. Azken urteetan lan askotan aritu naiz, injustizia baten ondorioz lanik gabe geratu naizen arte.

Kolonbian unibertsitatean terapeuta-ikasketak egin nituen. Etxea eta lana nituen Kolonbian, baina Kolonbiako indarkeriatik alde egin nahi nuenez, familiaren bizimodua hobetzera etorri nintzen Euskal Herrira. Ezagun baten bidez lortu nuen ume batzuk zaintzeko kontratua, eta horrela dokumentu guztiak lortu ondoren etorri nintzen hona: lan- eta bizileku-baimenarekin. Bi urte geroago etorri ziren nire seme-alabak. Zoritxarrez, unibertsitateko nire tituluak ez du baliorik hemen, eta ezin izan dut ospitaleetan lan egin. Hala ere, urte hauetan hainbat lanetan aritu naiz, adineko pertsonak zaintzen, batez ere.

Orain dela urtebete inguru autonomo egin nintzen eta nire bizitzari ziurtasun handiagoa emango niola pentsatu nuen. Zaharren egoitza txiki baten jabeak bere negozioa eramatea proposatu zidan. Horretarako, 2.000 euro ordaindu behar nizkion hilean, baina zaharren egoitzako arduraduna izango nintzen eta erabaki guztiak nire esku geratuko ziren. Nire semeak Lanbide Heziketako Elektromekanika titulua du, baina une hartan langabezian zegoen; beraz, onartu egin nuen proposamena, semeari lana emateko aukera ona izango zela pentsatuz. Aukera paregabea zen, baina azkenean biok langabezian utzi gaituen injustizia izan da. Zaharren egoitzan lanean hasi bezain pronto, hor zeuden langileek salaketa jarri zidaten. Dirudienez, 30.000 euro zor zizkien aurreko arduradunak. Egoitzaren jabeak bazekien, baina ez zidan ezer esan harekin tratua egin nuenean. Engainatu egin ninduen. Pasa den azaroan izan zen epaiketa, eta epaileak arrazoia eman zien salaketa jarri zuten langileei. Zaharren egoitzan jarraitu nahi banuen, langile horiei lana eman behar nien, eta 30.000 euro ordaindu. Baina, horretarako dirurik ez nuen eta utzi egin behar izan nuen.

Geroztik, semea eta biok langabezian gaude, prestaziorik jaso gabe. Zorionez, iaz tokatu zitzaigun orain dela hamar urte eskatu genuen alokairu sozialeko etxea eta horri esker badugu non bizi, behintzat. Nire alabak duen gaixotasun batengatik 357 euroko laguntza jasotzen dugu. Horrekin ordaintzen dugu alokairua, baina oinarritzko gastuetarako zailtasunak ditugu. Aurreztutako diruarekin ari gara moldatzen, baina lana laster aurkitu behar dugu aurrera jarraitu ahal izateko. Injustizia handi batek eraman gaitu egoera honetara, eta hori oso mingarria da.

Ez dut Kolonbiara itzultzeko asmorik. Bakarrik bueltatuko nintzateke negozio bat ipintzeko diru asko edukiko banu. Irlandan eta Frantzian ditudan lagunek haiengana joateko gomendatu didate, baina hizkuntza dut oztopo. Gainera, oso gustura gaude Euskal Herrian. Orain dela urte batzuk curriculum bidali eta berehala deitzen zidaten lan egiteko. Orain krisiarekin ez da hain erraza. Hala ere, ez naiz geldirik egoten eta aurkituko dut zerbait berandu baino lehen. Hala espero dut, behintzat.

ARRETXEA, Lander. Argia. 2014ko otsailaren 2a. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zergatik etorri zen Claudia Euskal Herrira?**
 - a) Kolonbian lanik ez zuelako.
 - b) Kolonbian bizi zuen egoeragatik.
 - c) Kolonbiako egoera Euskal Herrikoa baino hobea zelako.
2. **Zer egoeratan etorri zen Claudia Euskal Herrira?**
 - a) Lan-kontratua zuen, baina bizi-baimenik ez.
 - b) Lan-kontraturik gabe.
 - c) Lan-kontratua aldeztu aurretik lortuta.
3. **Zer egin behar zuen Claudiak zaharren egoitzan?**
 - a) Negozioa eraman eta erabakiak hartu.
 - b) Tratamendu terapeutikoa eskuz eman.
 - c) Semearen laguntzaz elektromekanika arloaz arduratu.
4. **Nork salatu zuen Claudia?**
 - a) Egoitzaren jabeak.
 - b) Claudia baino lehenagoko arduradunak.
 - c) Egoitzan lan egiten zutenek.
5. **Zergatik utzi behar izan zuen zaharren egoitza?**
 - a) Epailearen erabakiak agintzen zuelako.
 - b) Epaiketari erabakitakoari aurre egin ezin zituelako.
 - c) 30.000 euroak beste nonbait inbertitu nahi zituelako.
6. **Non bizi da orain Claudia bere seme-alabekin?**
 - a) Alokairu sozialeko etxe batean, diru-laguntzarik gabe.
 - b) Orain dela hamar urte tokatu zitzaion alokairu sozialeko etxean.
 - c) Alabaren diru-laguntzaz ordaindutako alokairu sozialeko etxean.
7. **Zer asmo du Claudiak?**
 - a) Kolonbiara itzuli nahi du.
 - b) Euskal Herritik kanpo bilatu nahi du lana.
 - c) Momentuz, ez du inora joateko asmorik.
8. **Nola dago Claudia aurrean duen egoerari begira?**
 - a) Baikor.
 - b) Ezkor.
 - c) Nekatuta.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A BIZKAIAN

Bizkaian, hondartza guztietan antzeko egoera dute; hala ere, herri bakoitzak bere desberdintasunak ditu. Adibidez, Sopelan animalien erabilera arautzeko bi arautegi dituzte: bata, herrian zehar horien erabilera mugatzen duena eta, bestea, hondartzetara mugatzen duena. Araudi horiek animalia guztiak biltzen dituzte. Txakurrez soilik hitz egiten da, baina animalia guztientzat da. Izan ere, azken urteetan izan duten arazo bakarra zaldi batek eragin zuen. Hondartzetarako debekuak badu epemuga: maiatzaren 1etik urriaren 31ra arteko tartean animaliek hondartzetatik kanpo egon behar dute, baina beste hilabeteetan ibil daitezke, betiere lotuta badoaz.

B IPARRALDEAN

Lapurdikoa kostako hondartzetan egoera desberdina da, animaliekin ibiltzea debekatuta baitago urte osoan. Hendaian, 2009tik dago debekatuta txakurrak hondartzan ibiltzea. Txakur gehiegi ibiltzen ziren eta bertan egiten zuten kaka eta txiza. Kasu honetan garbitasun-kontua izan zen debekuaren arrazoia. Miarritzen eta Donibane Lohizunen ere aspaldikoa da debekua. Urtero udatiar ugari hartzen dituztenez, hondartzak txukun eta lasai edukitzeak du lehentasuna. Hondartzan txakurrekin harrapatuz gero, jabeari 17 euroko isuna jarriko zaio, baina debekua askotan betetzen ez dutenen kasuetan edo txakurra arriskutsua bada, isuna 6.000 eurokoa ere izan daiteke.

C GIPUZKOAN

Donostian ohitura handia dago txakurrak hondartzetan paseatzeko. Baina txakurrak ezin dira eraman kate edo uhalarekin lotu gabe. Txakurrak lotuta eraman behar dira neguan. Horrez gain, udan guztiz debekatuta dago txakurrak eta beste etxe-abereak hondartzara eramatea, baita lotuta eramanda ere. Arauak betetzen ez direnean, Udalak hartzen du esku eta bi espediente ireki daitezke: batetik, txakurra aske eramateagatik, arau-hauste arin bat izan daiteke; eta, bestetik, jabeak txakurra ez kontrolatzeagatik, arau-hauste larria.

Zarauzko hondartzan, urriaren 12tik Aste Santuaren hasiera arte baimenduta dago hondartzan eta inguruan txakurrak lotu gabe edukitzea. Kasu horretan, txakur normalak soilik eraman daitezke. Arriskutsuak, ordea, lotuta eraman behar dira. Garai horretatik kanpo baimenduta dago txakurrekin ibiltzea, baina 21:00etatik 06:00etara eta kate edo uhalarekin lotuta badoaz. Arau horretan, arriskutsuak ez diren txakurrak soilik sartzen dira. Arriskutsuak direnak ezin izango dira hondartzan ibili egun horietan, ezta lotuta ere.

RUIZ, Ainhitze. ARRIZURIETA, Irene. LARRAÑAGA, Iñaki. Berria, 2014ko martxoa. Egokitua.

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Animaliek sortutako zikinkeria da debekuaren arrazoia.
10.	Txakur normalak ordutegi zehatz batean ibil daitezke udan hondartzan.
11.	Hondartzei buruzko arautegiak desberdinak dira herri batetik bestera.
12.	Azaroaren 1etik apirilaren 30era baimenduta dute hondartzan ibiltzea, txakurrak lotuta badoaz.
13.	Beti dago debekatuta animaliekin hondartzan ibiltzea.
14.	Txakurra ez zen animalia batek sortutako arazoa izan zuten.
15.	Akats larria da txakurra jabearen kontrolpean ez badago.
16.	Arauk desberdinak dira herrian edo hondartzan.
17.	Isuna askoz handiagoa da jabeak araua askotan betetzen ez badu.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

JULEN GABIRIA

Julen Gabiria idazleak 1.500 kilometroko bidaia egingo du, Gernika-Amsterdam, 16 etapatan. 2004an argitaratu zuen «Han goitik itsasoa ikusten da» nobela nederlanderara itzuli dute, eta aurkezpena Amsterdamen egingo dute. Gabiriari Amsterdamerako bidea bizikletaz egitea bururatu zitzaion orain dela pare bat urte eta orain abiatzeko eguna heldu da.

18

Liburua itzuli zutela jakin nuen egunean sortu zen ideia. Donostian nengoen beste liburu baten aurkezpenean, eta ondoan nuen Ander Izagirre. Berak bota zidan bizikletaz joatearena. Hasieran broma zena, gero serioago hartu nuen.

19

1.500 km inguru dira, eta hamasei etapatan egingo dut. Maiatzaren 14an irten eta 29an heldu. Udan jendearekin kontaktua egiten hasi nintzen, beren etxeetan lo egiteko. Bi sare erabili ditut: Warm Showers, zikloturistentzat, eta Couchsurfing, orokorra. Bi sareak erabilia, Frantzia iparralderaino helduko naiz, ia Belgikako mugaraino. Hara lagun bat etorriko zait autoz, handik aurrera ez naiz bakarrik ibiliko.

20

Liburua Gernikan hasten da, horregatik abiatuko naiz handik. Lehenengo bi etapak laburtxoak dira. Laburrak baina benetan gogorrak. Ordu-tegiak twiter-en ipiniko ditut, baten batek lagundu nahi badit bidean.

21

Bideak beti ematen du beldurra, etxetik irteten naizenean ere, ordu batzuetako ibilbidea egiteko ere. Bide zabalak ebitatuko ditut, bigarren mailakoetatik joango naiz.

22

Twitter eta Facebooken bai, ez dakit gauza luzeagorik egingo dudan. Tarteka zerbait ipiniko dut, norbaiti interesatzen bazaio. Ez dakit zenbateko interesa izan dezakeen, ez da abentura handia eta.

23

Badaude hor faktore batzuk, bi umeren aita naiz, eta badakit beste batzuek hala ere egiten dutela. Ni ez naiz asko saiatu. Gero, bi urte antzerki-arloan ibili nintzen. Gogoia hor dago, baina momentua izan behar da.

24

Kontu honetan lehenengo eta behin txirrindularitza-zaletasuna dago. *Han goitik itsasoa ikusten da* nobelan Gino Bartali txirrindulariak egindakoa azaltzen da, gainera. Dena dago lotuta. Bartalik 800 judu salbatu zituen, bizikletan hara eta hona pasaporte eta paper faltsuak eramanda.

25

Aurkezpena hilaren 31n izango da, itzultzailearen etxean. Gauza berezia prestatu dute, 25 lagunentzako afaria emango dute eta kontzertu txiki bat, eta amaieran itzulpenaren aurkezpena. Eta bueltan honekin guztiarekin zer egin pentsatu beharko dut.

FERREIRA ZAMALLOA, Nagore. <Bizkaie>, 2014ko maiatzaren 12a. Egokitua.

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

- A. Eta Amsterdamera heltzen zarenean, zer egingo duzu?
- B. Twitter-en arin zabaldu zen bidaiaren berria, ezta?
- C. Zeren arabera erabaki dituzu etapak? Zenbat dira?
- D. Izango dugu zure berri sare sozialetan?
- E. Nola bururatu zitzazun Amsterdameraino bizikletaz joatea liburuaren aurkezpena?
- F. Hamar urtean ez duzu helduentzako libururik idatzi. Nola, bada?
- G. Gernikatik Zarautzera izango da lehenengo etapa?
- H. Hala ere, ez da kasualitatea bizikletaz joatea haraino, ezta?
- I. Egun gutxi falta zaizkizu zure tour-a hasteko, ardura bereziren bat, errespetua ematen dizun zerbait?

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herriko udal-liburutegira joateko ohitura duzu. Azkenaldian arazo batzuk izan dituzu eta kexa ipintzea erabaki duzu.

Liburutegian erreklamazio-orria eman dizute kexa ipintzeko. Azaldu ezazu zer gertatu zaizun eta zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Hizkuntza-eskola bateko langilea zara. Herritar batek mezu bat bidali dizu informazioa eskatzeko.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". The "Norentzat:" field contains "Idazkaritza". Below it, there are links for "Gehitu Cc" and "Gehitu Bcc". The "Gaia:" field contains "Hizkuntza-eskolako informazioa". There is a link for "Erantsi fitxategia". A rich text editor toolbar is visible with various icons and a "Testu arrunta" button. The email body contains the following text:

Kaixo:

Eduardo da nire izena, eta zuregana jotzen dut zuen eskolari buruzko informazioa nahi dudalako. Iaz euskara-ikastaro bat egin nuen beste eskola batean. Herri honetara bizitzera etorri naizenez, eskolari buruzko informazioa jaso nahi nuke: non dagoen, bulegoko ordutegia, eskola-orduak, taldeak, funtzionamendua...

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Eduardo

■ Erantzun iezaiozu herritarrari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «ENGAINATU EGIN NINDUTEN»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	C	5.	B	6.	C
7	C	8	A		

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «TXAKURREN EGOERA GURE HONDARTZETAN»

Esaldiak	9	10	11	12	13	14	15	16	17
Testuak	B	C	A	A	B	A	C	A	B

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «JULEN GABIRIA»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	E	C	G	I	D	F	H	A

Soberakoa	B
-----------	---